

Tramitea: Elbarrituek haien izenean eta haien erabilera propiorako matrikulatuta dituzten ibilgailuak eta Nekazaritzako Makineriaren Inskripzio Kartila duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik SALBUESTEA

Definizioa/Norentzat:

ELBARRITUENTZAT:

-Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat, edo elbarrituek haien izenean eta haien erabilera propiorako matrikulatuta dituzten ibilgailuak.

NEKAZARITZAKO IBILGAILUENTZAT:

-Nekazaritzako makineriaren inspezio kartila duten traktoreak, erdi-atoiak, eta makinak.

Tramitea non egin:

Saila: ERRENTAK ETA ORDAINARAZPENAK – ARTEKARITZA

Helbidea: Foruen plaza 6, behea

Telefonoa: 943-744414

Faxa: 943-744405

Helbide elektronikoa: zergak@elgoibar.net

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara – Uztailan eta abuztuan 9:00etatik 13:00etara

Larunbatetan 9etatik 13:00etara (ekainean, uztailan, abuztuan, irailean eta abenduan izan ezik)

Aurkeztu beharreko agiriak:

Elbarrituek:

-Ibilgailuaren zirkulazioko baimena

-Ibilgailuaren ezaugarriei buruzko ziurtagiria

-Gizartekintzak edo horren ordezkotako Erakunderen edo Administrazio Agintaritzaren batek emandako ziurtagiriaren originala

Nekazaritzako ibilgailuek (traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta nekazaritzako makinak):

-Ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren fotokopia

-Ibilgailuaren ezaugarri teknikoiei buruzko ziurtagiriaren fotokopia

-Nekazaritzako makineriari dagokion inskripzio kartilaren fotokopia, edo bestela, ibilgailua Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Saileko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria. Agiri hori, ezinbestean, ibilgailuaren titularraren izenean egon beharko da

Prezioa/Tasak:

-Ez dauka kosturik

Bestelakoak:

-Interesatuak salbuespena eskatu beharko dute, eta horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobaria eskatzeko arrazoiak zehaztuko dituzte.

Legeria:

-2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen gaineko Araudi Orokorra onartzen duena.

Honekin zerikusia duten tramiteak: